

Baserri baino gehiago

Abaltzisketako alkate izandako Jesus Mari Gonzalezek eta beste baserritar batzuk «Nañarri» izeneko sagardotegi eta jatetxea montatu dute Larraitzen, bertako produktuak promozionatu asmoz

RUFINO IRAOLA GARMENDIA

LAU jatetxe, baserri bat eta ermitak osatzen dute Larraizko etxetaria guztia. Bere txikian, inportantzia handiko bilgunea da, ordea, Larraitz; Nañarri (Txindoki) mendirako abiapuntu printzipaletako bat bera baita. Abaltzisketako partean dago kokaturik; Amezketak, Gaintza eta Zaldibiarekin mugante, haurra amaren altzo beroan bezala, Nañarriren magalean pausatutik, zoragarri.

Hasieran aipatu ditugun jatetxe horien artean bada bat ohizko jatetxea baino zerbait gehiago dena, diferentea, orijinaltasunez jantziagoa dena. Hiru planta ditu Nañarri etxeak. Lehenengoan: tolaera eta sagardoa almagatzeko kupelak daude. Bigarren: sukaldea, jangelak eta ziritik edateko kupelak. Hirugarrenean: laster destinoa emango zaien logela batzuk.

Horretaz hitz egitera joan ginen Larraitza eta hantxe topatu genuen Jesus Mari Gonzalezek, guri dena kontatzeko prest. Berez donostiarra da gure elkarriketatua. Bulego lanetan ibilia; Ingalaterrara emigratu, inglesa batekin ezkondu, itzuli eta beste toki batzuetan bizi izan ostean, 1983an Abaltzisketara etorri, Nañarriaren baserria erosi eta bertan ari da nekazari.

«Mendiko nekazaritza» programaren barruan burututako proiektua da hau. Herriko sei baserritarrek, elkarte anonimoa sortu eta bina milioi ipini ditugu

Ilunabarrean, eguzkia abaro egitera erretiratzear dagoen horretan, Nañarripeko maldaren sabel emankorrean larreratzen diren behi eta zekorrek siestatik esnatu eta iluntzeko freskuran igortzen zituzten dunba eta zintzarrien oihartzunak Larraizko ermitaren kontra musikaren konpasean leheritzen zirela ekin genion elkarriketari. Horregatik galdetu genion:

— Ez al da zoragarria Larraitz?

— Noski! Orainxe berean daukagun giroa ikusi besterik ez dago. Zoragarria ez balitz, ez litzateke horrenbeste jende etorriko.

— Nola sartu zinen, kaletarra izanik, baserri giroko abentura honetan?


— Hasieran idealismo apur batez, agian. 70. hamarkadan nik 24 urte nituen eta orduan hasi zen indartzen mugimendu ekologista. Hiriko giroa ez gustatzeaz gain, kontsumoko gizartearen kontrako jarrera ere bazen. Ingalaterran egon nintzen eta han baziren ordurako era honetako mugimenduak.

— Nondik nora sortutako ideia da sagardotegi jartzeko hau?

— Abaltzisketako industriarik ez dauka; bestela esanda, baserria da hemengo industria, eta herriaren etorkizuna baserrian oinarritzen da; horregatik, bide guztiak urratzea ezinbestekoa iruditu zitzaigun.

— Nola definituko zenuke establezimendu hau: sagardotegi, jatetxe...

— Baserriaren jarraipena dela esango nu-



«Nañarri» etxea eta Jesus Mari Gonzalez tolaera ondoan./IRAOLA

ke. Baserriko gauzak komertzializatzeko salmenta puntu bat. Konpetitiboa izateko, normalean, asko produzitu behar du baserritarrak eta horretarako ongarri kimikoetara, etabar jo behar izaten du. Guk, aldiz, ongarri naturalez sorturiko produktuak saltzen ditugu hemen. Bi zutabetan oinarritzen da gure filosofia: produktu natural eta kalitatekoak saldu eta transformatu behar direnean geuk transformatu.

— Beraz, zeintzu dira produktu horiek?

— Hasteko, ikusi duzun bezala, sagardoa hemen bertan egiten dugu. Menuak prestatzeko erabiltzen ditugun antxume, oilasko, koneju, arkume, antzar, gazta, arrautza, babarrun, barazki, pasta, menbrilo, ogia... gure baserrietan, kasik modu artizanalean eta kalitatea zainduz elaboratuak dira.

— Barrarik ez dauka. Zergatik?

— Hori printzipio kontua izan da, hau da, establezimenduaren idealizazioarena; baina apur bat lurrera jaitsi beharrean aurkitzen gara eta laster izango du barra ere. Ez, noski, tabernako barra klasiko horietakoa, mostadore txiki bat, dendaren antz gehiago izango duena baizik; batez ere menbriloa, gazta, pastak eta beste bertako produktu batzuk saltzeko. Gero, horrekin batera, taberna moduan ere funtzionatuko du.

— Nor da establezimendu honen jabea?

— «Mendiko nekazaritza» programaren barruan burututako proiektua da hau. Beraz, Diputazioak eta gure herriko Udalak egin dute aportaziorik. Hain zuzen, edizioa Abaltzisketako Udalarena da eta 50 urtetarako utzi dugu. Eta guk, herriko sei ba-

serritarrek, elkarte anonimoa osatu eta bina milioi ipini ditugu. Baina herriko beste edozein baserritar sar dadin ateak zabalik daude. Exijitzen zaion baldintza bakarra zera da: gutxienez, 80 sagar-landare izatea. Eta, hori bai, lehen esan ditugun bi milioi horiek eta dagokien rebalorizazioa ipintzea.

— Zu Abaltzisketako alkatea zinen eta dimititu egin zenuen. Etxe honek ba al du zer ikusirik dimisio horrekin?

— Ezta pentsatu ere! Nik, lehen esan bezala, baserrian oinarritzen dut herriko etorkizuna eta nekazal eremuak defendatzea eskatzen du horrek. Adibidez, etxeak edozein tokitan egitea galerazi egin behar da. Horrek ekarri zizkidan problema batzuk herrian eta zenbait etabaida Udal barruan. Bestalde, baserriaren etorkizuna ahalik eta biderik zabalenak urratuz defendatzen dut: zuzenean saldu, kalitatea zainduz laborantza biologikoa, transformatu behar izanez gero baserrian bertan transformatu, produktu artizanaleak, agroturismoa... Hori zen Udaletxean ulertzen ez zen filosofia. Herrian ere gauza beretsua gertatzen zitzaidan, baserria ez dela herriko etorkizuntzat jotzen eta planteamendu hauek ez direla ulertzen. Horregatik, ni ziur nago batek baino gehiagok esango duela: «Txaletak egiten utzi ez eta berak Larraitzen hori montatu». Euskararen gainean ere izan nituen gorabeherak. Azkenean, hauxe ikusi nuen: beste zinegotziek herriari buruz beste kontzeptio bat baldin bazuten, hobe zela nik dimititu eta beraiei lan egiten uztea.

— Orain arteko martxarekin gustora al zaude?

— Bai, nahiko konforme gaude. Asteburuetan, behintzat, oso ondo egiten dugu lana. Eta proiektua erabat bukatzen dugunean, oraindik ere, arrakasta handiago espero dugu.

Baserrian oinarritzen dut herriko etorkizuna eta nekazari eremuaak defendatzea eskatzen du horrek. Hori zen Udaletxean ulertzen ez zen filosofia, eta azkenean dimititu egin nuen

— Zer esan nahi duzu «proiektua erabat bukatu» horrekin?

— Beno, ba, beste gauza bat ere badaukagula oraindik pendiente. Agroturismo aldeetik zerbait egiteko asmoa bagenuen, baina alde horretatik gauzak nahikoa estu eta zorrotz jarri dira. Orduan, goiko partean, zor-tzi gela eta lau bainu libre dauzkagunez, alberge edo ostatu bezala funtziona dezan saiatuko gara: ikastolako umeentzat egonaldiak, mendizaleak, kanpoko jendea, nekazaritza ikastaroak... Ziur ez dakigu nola enfokatu, baina irtenbidea aurkituko diogula seguru gaude.

Hiru herritako kanpai-hotsak entzunez atera ginen Nañarritik. Zortziak puntu-puntu. Berriz esanda ere ikusgarri geratu zen Larraitz, eguzkiaren azken ferekak dastatzen, trasteak bildu eta etxerako bideari lotu gintzaizkionean. Egun hartako lehen afaldarrak orduantxe hasi ziren Nañarri.